

ZUBIARTE EUSKALTEGIko

BIZIKIDETZA PLANA

1.- SARRERA.	2
2.- Bizikidetzaren egoera ikastetxean.	3
3. Oinarrizko printzipioak	4
4.- Helburu orokorrak.	5
5.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	6
5.1. Printzipio orokorrak.	6
5.2. Ikasleen eskubideak.	7
5.2.1. Oinarrizko eskubideak	7
5.2.2. Ikasleen eskubideak maila akademikoan.	9
5.3. Ikasleen eginbeharrak.	9
6.- Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak eta eginbeharrak	11
6.1. Eskubideak.	11
6.2. Irakasleen eginbeharrak	13
6.3. Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen eginbeharrak	14
7.- Bizikidetza batzordea.	14
7.1. Osaera eta eginkizunak.	14
7.2. Jarduera lerroak.	14
7.3. Bilerak	15
7.4. Jarduera ildoak	16
7.5. Indarkeria mota desberdinen aurrean jarduteko protokoloak.	16
7.6. Bizikidetza planaren urteko zehaztapena.	17
7.7. Bizikidetzaren araudia.	17
7.8. Ebaluazioa	17

1.- SARRERA

Zubiarte Euskaltegiaren nortasun ezaugarri nagusiak Hezkuntza Proiektuan jasota daude. Bertan, haren xedea, ikuspegia eta baloreak agertzen dira:

Zubiarte Euskaltegi Publikoa Nafarroako Hezkuntza Departamentuko ikastegi autonomoa da; haren jardun eremu hurbila Iruñerria da, baina Nafarroa osoko jendea euskalduntzea du helburu, Nafarroatik kanpoko ikasleak artatzeari uko egin gabe; Jendartea euskalduntzea eta euskararen erabileraren normalizazioa lantzea du helburu. Nafarroakoa propioa den hizkuntzaren balio historiko eta kulturaren ezagupena, onarpena eta transmisio biziaren alde egiten du lan.

Ikuspegiari dagokionez, kalitatezko ikastetxea izatea nahi dugu, euskararen irakaskuntza erreferentea. Irakaskuntza aurrera eramateko pedagogia egokian eta teknologietan trebatua dagoen irakasle-klaustroa duena.

Helduen euskalduntzea helburu duen ikastetxea izanik, ikaslearen komunikazio-gaitasuna garatzera bideratuko du bere irakaskuntza, ikasprozesuaren akaberan maila bateko zein besteko erabiltzaile bilakatzera. Horretarako, curriculumean Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren oinarri psikopedagogikoen baitan, ekintza komunikatiboa oinarri harturik, ikuspegi komunikatiboa, soziokonstruktibista eta ekintzara bideratutakoa hobetsiko da. Aniztasun kulturala eta ideologikoa aintzat hartuz, berezko nortasun linguistikoa sustatu eta ikasleak modu integral eta harmonikoan prestatuko duen ikastetxea izatea nahi dugu.

Helduak euskalduntzea helburu duen ikastetxe honek balore nagusien laburpena: bai oinarritzko giza-trebetasunak, bai trebetasun emozionalak lantzen duen euskaltegia izatea nahi dugu, autokontrola, autoestimua, frustrazioaren aurrean jarraitasuna eta auto-motibazioa lantzen duena. Eskola giroa zein harreman onak izateko, elkarbizitza garatzen duena, irakasleak ikasleen aniztasuna kudeatzen dakiena, materialetan, jardueretan eta irakasleen jarreretan berdintasuna lantzen duena eta genero ikuspegia duena. Hitz gutxitan esanda, hezkuntza etapa hau atsegin, solidario, inklusibo, hezkidatzailea, partehartzailea eta berriztatzailea izatea nahi dugu.

Helburu hori lortzeko beharrezkoa da ikaskuntza erraztuko duen **lan giro ordenatu, koherente eta koordinatua** eta, orobat, diziplina eta helburu komun bat erdietsi nahi delako kontzientzia, gizabanakoari eta taldeari ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko dieten azturak eta jokabideak sortzeko oinarri gisa. Oro har, horiek izan beharko lirateke berez bizikidetzarako arauen oinarriak, **ulertuta bizikidetzara dela**

helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egiteko borondatea, lortu nahi diren balioak eta horiek lortzeko prozedurak eta arauak adostasunez ezarriz.

Bizikidetza Planean arautuko dira ikasleen arteko harremanak, irakasleen artekoak, administrazioko eta zerbitzuetako langileen artekoak eta talde horien guztien artekoak

2.- Bizikidetzaren egoera ikastetxean

Zubiarte Euskaltegiko bizikidetza giroa, oro har, ona dela baieztatzen ahal da. Helduen arteko dinamiketan sortzen ahal diren gorabeherak alde batera utzita, ez da diziplina arazorik izaten, ez eta kideen arteko liskar handirik ere. Beraz, sektore guztien arteko harremanak elkarrenganako errespetuan oinarrituta daudela esaten ahal dugu.

Zubiarte Euskaltegia arautzen duen Foru Agindua ez dago jasota Nafarroako Gobernuak Araubide Bereziko irakaskuntzen artean, baina, esaten ahal dugu, antz handia dutela bertako bezeroek araubide horretan agertzen direnekin (Hizkuntza eskolakoekin bereziki)

- Ez da derrigorrezko ikasketa
- Ikasleak astean behin edo bitan etortzen dira euskara ikastera. Modalitatearen arabera denbora ematen dute: aurrez aurreko taldeetako ikasleek lau, lau eta erdi edo bost orduz izaten dira astean. Autoikaskuntzako ikasleek bi ordu eta 15 minutu. Online modalitatean ari direnek euskaltegiarekin duten harremana modu birtualean izaten dute, eta euren arteko harremana ere berezia da.
- Taldeak heterogeneoak izaten dira, ikasleen adinari eta bizitza eskarmentuari dagokienez.
- Hizkuntza bera da ardatz eta helburu. Euskal Kultura - modu zabalean ulertuta - bidaide eta ikasbide.
- Klaseetan lantzen diren unitateetako gaiak curriculumean agertzen direnak dira, oro har. Aktualitateko gaiak ere tartekatzen dira.
- Euskaltegian sartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da. Inor ez dago derrigorturik euskaltegira etortzera.
- Hezkuntza Komunitatearekin harremana errespetuzkoa da.

- Klaseetan euren ikas-prozesuaren protagonista izateko aukera ematen zaie ikasleei eta euren ekarpenak, iradokizunak eta kritikak aditu egiten dira.
- Ikasgelako dinamikak ikasleen zein irakasle-ikasleen arteko elkarreragina bultzatzen da eta, horretarako, ezinbestekoa da harreman-sarea, lan-giroa, lankidetzak, enpatia, begirunea eta interesa sortzea.

3. Oinarrizko printzipioak

1. Hona hemen portaera desegokiak hartzen direnean aplikatu behar diren hezkuntza neurrien eta ikasleen eskubide eta eginbeharren esparru arau-emaelearen oinarrizko printzipioak, kalitatezko hezkuntza lortzeko:

- a) Ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua faboratzen duen giroa eta harreman positiboetarako giroa ezarri beharra, erantzukizunerako hezkuntzaren kontzeptuan oinarrituta.
- b) Eskola elkarte osoaren parte-hartzea eta konpromisoa.
- c) Gatazkei aurrea hartzea eta bake bidez konpontzea.
- d) Pertsona guztien benetako berdintasuna zailtzen duten traba guztiak kentzea eta emakumezkoen, gizonezkoen eta ez bitarren eskubideen eta aukeren erabateko berdintasuna sustatzea.
- e) Tratu berdinen printzipioa sartzea, jokabide sexistengatik, LGTBIfobiengatik, arrazistengatik, xenofoboengatik edo erlijioaren kontrakoengatik edo horiei loturiko estereotipo sozialetan oinarritutako jokabideengatik bazterkeria edo desberdintasunak izatea saihestuz.

2. Eskola elkarteko kide guztiei dagokie ikastetxeetako elkarbizitza bermatzeko behar diren neurriak hartzea eta horretaz arduratzea, hala nola ikasleen eskubideak zuzen baliatzen direla eta eginbeharrak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzeko, legeak ezarritakoari jarraikiz. Hori helburu:

- a) Ikastetxeko zuzendaritzak giro egokia bultzatuko du ikasteko, ikasleek gaitasunak eskuratzeko eta ikastetxean elkarren ondoan bizitzeko, eta gatazkek sortzen direnean, auzia elkarriketaren bidez, akordioaren bidez, bitartekaritzaren bidez edo gatazkek bake bidez konpontzeko beste teknika batzuen bidez konpontzen saiatuko da. Bestalde, indarreko legediaren arabera bidezko diren hezkuntza neurriak ezarriko dizkie ikasleei.

- b) Eskola Kontseiluak eta klaustroak behar diren neurriak eta ekimenak proposatuko dituzte ikastetxean elkarbizitza sustatzeko eta horrelakoak garatzen lagunduko dute.
 - c) Eskola Kontseiluak diziplina gatazken ebazpenak ezagutu beharko ditu, indarreko legediaren arabekoak izatea begiratuko du eta, erreklamazioak aurkeztuz gero, berrikusten ahalko ditu.
 - d) Klaustroak ezagutu beharko du, orobat, diziplina gatazken ebazpena eta zuzenketa neurrien ezarpena, eta indarreko araudiaren arabekoak izan daitezen begiratuko du.
 - e) Irakasleek bermatuko dute ikasleak integartzeko eta elkarbizitza hobetzeko estrategia eta jarduerak garatzen direla, elkarrizketen, bileren edo egoki iruditzen zaizkien beste baliabide batzuen bitartez.
 - f) Irakasleek ikastetxeko jarduerak errespetuzko giro batean garatzen lagunduko dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko prozesua errazteko ikasleei, eta horretarako beren agintea erabiliko dute gelan eta ikastetxean. Era berean, sortzen diren diziplina gatazketan edo arazoetan lehenengo esku-hartzearen arduraduna izanen da eta konpontzeko behar diren neurriak aplikatuko ditu bere erantzukizunaren eremuan.
 - g) Ikasleek erantzukizunez jokatu dute beren eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko orduan.
 - h) Adin txikiko ikasleen kasuan, gurasoek, beren seme-alaben lehenengo hezitzaile nagusiak direnez, behar diren neurriak hartu beharko dituzte familia giroan, irakasleen agintearen aitorpena sustatu beharko dute seme-alaben artean, eta hezkuntza prozesua egokia izan dadin lagundu beharko dute, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatuz.
3. Hezkuntza Departamentuak babes eta laguntza juridikoa bermatuko die hala zuzendaritza taldeei, nola irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei, beren lanbide jardueran gatazkak sortzen direnean.

4.- Helburu orokorrak

204/2010 Foru Aginduak, haren 10. artikuluan zehaztu bezala, honako hauek dira helburu orokorrak:

- a) Bizikidetzarako hezkuntza planifikatu eta ikasle guztiak heziketa emozionalean, balioen heziketan eta trebetasun sozialen ikasketan prestatzea, gaitasun guztiak integratzen dituen ikuspegitik.
- b) Bizikidetzaren giroa etengabe hobetzea, ezinbesteko elementua baita eskolako eta ikasketen errendimendu egokirako.
- c) Hezkuntza komunitate guztia sentsibilizatzea bizikidetza positibo baten aldeko ekintzak planifikatu eta garatu beharraz.
- d) Gatazken konponbide baketsua sustatzea gogoeta eta ikasketa baliatuz, baita elkarrizketa bidezko teknika eta estrategiak erabilita ere, entzute aktiboa eta alde guztietarako konponbide adostu eta onuragarrien bilaketa bultzatuta, eta komunikaziorako bideak ezarrita.
- e) Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko errespetua, onarpena eta tratu ona sustatzea. Tratu on horrek pertsonen arteko harreman guztietara hedatu beharko du.
- f) Ikasgelako eta ikastetxeko arauak denen artean prestatzea bultzatzea, baita haienganako errespetua ere.
- g) Lankidetzarako bideak ezartzea ikastetxearekin zerikusia duten kanpoko eragile edo entitateekin

5.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

5.1. Printzipio orokorrak.

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztuz batzuk izan daitezke.
2. Eskolaratze aldian, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu,
3. Indarrean dauden legeetan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.
4. Eskubide bat erabiltzeak, banaka edo taldeka, berarekin dakar besteen eskubideak errespetatu beharra.
5. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarterako gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla.

5.2. Ikasleen eskubideak.

5.2.1. oinarrizko eskubideak

a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- a.1) Elkarrekiko errespetuaren eta askatasunaren erabileran oinarritutako hezkuntza, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barrenean, hala nola gatazkei aurrea hartu eta bake bidez konpontzeko jokabidean oinarritutako hezkuntza.
- a.2) Indarrean dauden legeetan ezarritako balio eta printzipioetan oinarritutako hezkuntza.
- a.3) Giza Eskubideen tratatu eta deklarazio unibertsalean aitortutako printzipio eta eskubideetan, herritar demokratikoen substratua osatzen duten balio erkideetan eta pertsona guztien duintasunaren errespetuan -nolakoa den aintzat hartu gabe- oinarritutako hezkuntza.
- a.4) Indarreko legedian ikasleei eta eskola elkarteko gainerako kideei aitortzen zaizkien eskubide eta eginbeharretan oinarritutako hezkuntza.

b) Errespetatua izateko eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso, etiko eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorra 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

- b.1) Intimitatearen errespetua.
- b.2) Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso, etiko eta moralen errespetua.
- b.3) Pertsona guztien aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.
- b.4) Eraso fisikoen, emozionalen, etikoaren, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.

b.5) Elkarbizitza positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituen.

b.6) Konfidentzialtasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketakoak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalen babesari buruzko legediari jarraikiko zaio.

c) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea.

d) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea.

Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

d.1) Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eratuta dauden ikasleen elkarteen bidez parte hartzea.

d.2) Adierazpen askatasuna.

d.3) Ikastetxean biltzea.

d.4) Elkarrekin osatzea. Ikasleek elkarrekin osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.

d.5) Adiskidetze eta bitartekaritza bideak erabiltzea gatazkak konpontzeko hezkuntza metodo gisa.

d.6) Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

e) Osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea.

f) Emakumeen, gizonen eta pertsona ez bitarren eskubideen eta aukeren berdintasunerako eskubidea.

f.1) Hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea, ikaslearen autoestimua eta nortasuna garatzeko berdintasun balioak transmititzeko giltza-baliabidea baita.

f.2) Aukera akademikoak, pertsonalak eta profesionalak sexuari lotutako estereotipoetan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko prestatzea.

f.3) Ikaslearen heldutasun pertsonala, soziala eta morala sendotzea, bere harreman pertsonaletan eta afektibo-sexualetan erantzukizunez eta modu autonomoan jarduteko, dauden desberdintasunak aztertu eta kritikoki baloratzeko eta pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko.

5.2.2. Ikasleen eskubideak maila akademikoan.

Ikasleek honako eskubideak dituzte:

- a) Ikas-prozesuaren jabe izateko eskubidea, hots, Programazio didaktikoen oinarriko alderdiak ezagutzeko eskubidea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak.
- b) Ikas-materialak eskura izateko eskubidea irakasleak zehaztutako moduan.
- c) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute.
- d) Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere.
- e) Euskaltegiak antolatzen dituen akreditazio probetan aurkezteko eskubidea.
- f) Taldez eta modalitatez aldatzeko eskubidea, beti ere aukeratu duen taldean tokirik bada.

5.3. Ikasleen eginbeharrak.

Hona hemen ikasleen oinarriko eginbeharrak:

- a) Ikastea, ikasleen oinarriko eginbeharra baita. Eginbehar honek zera dakar:
 - a.1) Euskaltegiko jardueretara joatea eta aktiboki parte hartzea.
 - a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.
 - a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.
 - a.4) Atsedenaldiari, elikadurari eta higienerari dagokienez, ohitura egokiak izatea.

- b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea.

Eginbehar honek zera dakar:

- b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta elkarbizitzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.
- b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.
- b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.
- b.4) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:
- b.5) Ikastetxeko elkarbizitzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.
- b.6) Parte hartzea eta eskola elkarteko kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezten.
- b.7) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.
- b.8) Bere ahalmenen arabera, sortzen diren gatazkei aurrea hartzen eta gatazkak bake bidez eta zuzen konpontzen parte hartzea.
- b.9) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.
- b.10) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketenen alde aktiboki parte hartzea, biktimagaiak errespetatuz, defendatuz eta integratuz, eta ikastetxeak Elkarbizitza Planeko "antibullying" protokoloaren bidez ezartzen dituen neurrietan lagunduz.
- b.11) Ikastetxeko eta, kasua bada, ikasgelako elkarbizitzarako arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumen esparruan.
- b.12) Ikastetxearekin batera aktiboki parte hartzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeko jarduera eta bizitzan sar daitezten.

c) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:

c.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzeko eta hori elkarbizitzarako oinarrizko arauak hartzea.

c.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea legeetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak erabil ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.

c.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatu.

c.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso, etiko eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak babestu eta aitortua; orobat, eskola elkarteak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatzea, jaiolera, arraza, sexua, generoa, joera-sexuala, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.

c.5) Eskola elkarteak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.

d) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higieena zainduta joatea.

6.- Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak eta eginbeharrak.

6.1. Eskubideak.

a) Langileei oro har aitortutako lan eskubide guztiak.

b) Tratu zuzena jasotzeko eskubidea, hezkuntza erkidegoko kide guztien eta, oro har, herritar guztien aldetik.

c) Norberaren ordutegia errespetatua izateko eskubidea.

d) Arrazoi sindikal, profesional edo akademikoengatik biltzeko, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz.

e) Zubiarte Euskaltegian duen jarduerarekin loturiko ikastetxeko materiala eta instalazioak erabiltzeko.

f) Ikastetxearekin loturiko bere intereseko zeinahi bilera ofizialetara behar bezalako aurrerapenarekin deitua izateko edo horren berri jasotzeko.

- g) Bere lanpostuarekin loturiko zeinahi informazio edo dokumentazio eskuratzeko:
- h) Irakasleen, mailako arduradunaren edo zuzendaritza taldeko kideen aldetik informazioa jasotzeko, pertsonalki axola dion eta Zubiarte Euskaltegian egiten duen jarduerarekin lotuta dagoen zeinahi gai edo araudiri buruz.
- i) Ikastetxeko kudeaketan aktiboki parte hartzeko, pertsonalki, gobernu edo parte-hartze organo bateko kide bada, edo ordezkarien bidez.
- j) Klaustrorako edo Eskola Kontseilurako bilera deitzeko, betiere kideen heren batek (1/3) egiten badu eskaera.
- k) Bilera deitzeko zuzendaritza taldeko edozein kidearekin, 48 ordu lehenagotik, betiere gaien interesa dutenen heren batek (1/3) eskatzen badu. Deialdia ikastetxeko beharren mende egonen da.
- l) Gobernu organoei egoki iritzitako iradokizunak, ideiak eta arazoak azaltzeko eta entzuna izateko.
- m) Irakasleek katedra askatasuna izanen dute, baina Foru Komunitateko araudiei jarraikiz.
- n) Irakasleek eskubidea dute Urteko Programazio Orokorren betetze mailari buruzko memorian banakako ordutegitik kanpo egindako jarduera osagarrien zerrenda agertzeko.
- o) Langileei, ikasleei eta barne funtzionamenduari buruz fitxategietan agertzen den informazio guztia isilpekoa dela jotzeko.
- p) Biltzeko:
 - p.1) Irakasleen bilerak: klaustroko edozein kidek deitu ditzake, Zubiarte Euskaltegiarekin lotura zuzena duten gaiak jorratzeko. Deialdiak sinatua egon behar du eta jendaurrean jarri beharko da gutxienez 48 ordu lehenago. Bilera hori irakasleek ikastetxean nahitaez egon beharreko orduetan egin daiteke, baina ez irakastaldietan. Edonola ere, irakasle bakar bat ere ezin izanen da klasetik atera bilera pertsonal batera joateko.
 - p.2) Administrazioko eta zerbitzuetako langileen bilerak: administrazioko eta zerbitzuetako langileak Euskaltegiko esparruan bil daitezke, ez bada eskolaren ohiko funtzionamendua galarazten. Bilera horiek idazkariari eta/edo zuzendariari jakinaraziko zaizkio 48 ordu lehenago.
- q) Datu pertsonalak babestuak izateko eskubidea. Hezkuntza komunitatearekiko harremana Departamentuak emandako posta elektronikoa ofiziala erabiliko da. Telefono pertsonala soilik langileek baimendutako kasuetarako erabiliko da.

6.2. Irakasleen eginbeharrak

- a) Atxikita dagoen hizkuntza/k objektibotasunez irakastea, dogmakeriarik eta doktrinamendurik gabe.
- b) Ikaskuntza beharrei erantzutea, idatzizko eta ahozko probetan eskatzen diren hizkuntzaren alderdi guztiak barne hartuz.
- c) Ikasleak estimulatzea ikasgelan aktiboki parte har dezaten.
- d) Dituen taldeen jarraipena egitea tutore gisa.
- e) Ikasleen bertaratze hutsegiteak kontrolatzea.
- f) Indarreko araudiak eta/edo kide den mailak ezarritako irizpideak errespetatuz ebaluatzea ikasleak.
- g) Akreditazio probak prestatzea, mailako bileretan erabakitako banaketaren arabera.
- h) Akreditazio probak kudeatzea, mailako bileretan erabakitako banaketaren arabera. Halaber, proben emaitzen kudeaketak ekar ditzakeen bestelako lanak ere.
- i) Banakako ordutegia errespetatzea eta berandu etorriko bada edo ez bada etorriko ikasketaburuari lehenbailehen jakinaraztea, baita zein ordutan edo datatan itzuliko den ere. Hau eginda, behar bezalako ziurtagiriak ikasketaburuari emanen dizkio.
- j) Bizikidetza arauak errespetatzea eta elkertasunez laguntzea ordena, garbiketa, instalazioak eta eskola bizitzaren martxa ona mantentzen.
- k Eskola erkidegoko gainerako kideak errespetatzea.
- l) Eskoletan antzemandako edozein gorabehera zuzendaritza taldeari jakinaraztea.
- m) Nahitaezkoak diren bileretara joatea.
- n) Eskola Kontseiluan, klaustroan eta mailako bileretan hartutako erabakiak errespetatu eta betetzea.
- o) Mailako bileretan aktiboki parte hartzea, haren antolaketa hobetzeko ekarpenak eginez.
- p) Irakaslanarekin eta ikastetxeko funtzionamenduarekin loturiko araudi guztiari buruzko informazioa jasotzea.

6.3. Administrazio eta Zerbitzuetako langileen eginbeharrak

- a) Gure hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztiak errespetatzea.
- b) Lanbide jardueran erabiltzen duen materiala mantendu eta ongi erabil dadin laguntzea.
- c) 48 ordu lehenago eskatzea laneko baimenak eta lizentziak.
- d) Nagusien aginduak betetzea zerbitzuaren berezko gaietan.
- e) Gainerako estamentuekin batera lan egitea ikastetxeak ongi funtzionatu dezan.
- f) Zuzendariari eta/edo idazkariari jakinaraztea ikastetxean gertatzen den zeinahi irregulartasun.
- g) Banakako ordutegia errespetatzea eta berandu etorriko bada edo ez bada etorriko zuzendariari lehenbailehen jakinaraztea, baita zein ordutan edo datatan itzuliko den ere.

7.- Bizikidetza batzordea

7.1. Osaera eta eginkizunak.

Zuzendariak izendatuko du bizikidetza batzordea. Ondokoek osatuko dute:

- a) Zuzendariak edo hark zuzendaritza taldean izendatzen duenak.
- b) Bizikidetzako arduradunak
- c) Irakasle batek.
- d) Ikasle batek

7.2. Jarduera lerroak

- a) Bizikidetza Plana eta haren urteko zehaztapenak parte-hartze sistema baten bidez prestatzeko prozesua diseinatu eta hartaz arduratzea.
- b) Bizikidetza Plana eta haren urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.
- c) Bizikidetzaren egoera ezagutzeko beharrezkoak diren aldizkako ikerketak programatu, bultzatu eta egitea eta, orobat, Bizikidetza Planaren urteroko ebaluazioa egitea, dagozkion hobekuntzak proposatuz.
- d) Hezkuntza komunitateari Bizikidetza Planaren aplikazioari buruz informatzea.
- e) Urteko zehaztapenaren memoria prestatzea.

- f) Bizikidetza araudiaren berrikuspenetan laguntzea.
- g) Ikastetxean bizikidetza araudia aplikatzeko jardueren gaineko informazioa biltzea eta, dagokionean, ekarpenak egitea.
- h) Hezkuntza komunitateari aholku ematea bizikidetzaren arloan, eta irakasleentzako zein hezkuntza komunitateko gainerako kideendako gai horren gaineko prestakuntza jarduerak sustatzea.
- i) Zuzendaritzari aholku ematea bizikidetzaren aurkako edo bizikidetzarako oso kaltegarriak diren jokabideen aurrean hezkuntza neurriak aplikatzearen gaineko erabakiak hartzeko.
- j) Bitartekaritza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaren gaineko ardura hartzea.
- k) Bitartekaritza formaleko prozesuak antolatzea, Plan honetako bizikidetza araudian ezarritakoaren arabera.

7.3.Bilerak

Bizikidetza batzordea bilduko da diziplina gaiengatik beharrezkoa den bakoitzean.

Bizikidetzako arduradunaren eginkizunak.

- a) Bizikidetza batzordea eta haren ekintzak eta proiektuak dinamizatzea.
- b) Bizikidetza Planaren prestaketan, ezarpenean, ebaluazioan eta eguneratzean parte hartzea, baita plan hori garatu, abiatu, ebaluatu eta urteroko zehaztapenak egiteko beharrezkoak diren hezkuntza erkidegoa inplikatzeke mekanismoetan ere.
- c) Ikasleen prestakuntza eta parte-hartze aktiboa, gatazkak prebenitzeko eta ebazteko estrategiak, eta hezkuntza erkidegoko eragileen inplikazioa artikulatzea, Bizikidetza Planaren esparruan.
- d) Irakasleak esparru honetan presta daitezen bultzatzea, bizikidetzako arduradun gisa bere prestakuntza pertsonala eguneratzea, eta ikastetxeko beste talde batzuek bizikidetza arloan eskuratu beharreko prestakuntzaz arduratzea.
- e) Zuzendariari lagundu eta aholku ematea bizikidetza araudia aplikatzeko orduan.
- f) Honako dokumentuen ardura hartzea: ikastetxeko Bizikidetza Plana, haren urteko zehaztapenak (arduradunaren lan plangintza sartuko da bertan) eta urteko memoria.

7.4 Jarduera ildoak

Ikasleak

- a) Ikasgelaren barnean lankidetzaren giroa sortzea, parte hartzeko, elkar ezagutzeko eta taldean elkarrekin lan egiteko jardueren bitartez.
- b) Ikasgelako espazioa parte-hartzea laguntzeko moduan kudeatzea.
- c) Ikasgelatik kanpoko jarduera osagarriak sustatzea, ikasleen arteko eta ikasleen eta irakaslearen arteko harremanak laguntzeko eta, orobat, ikasten ari diren euskararekiko harremana izan dezaten bestelako testuinguruetan.
- d) Informazio bideak zabaltzea garrantzitsuak diren alderdi orotan.

Irakasleak

- a) Harrera protokoloa eguneratua izatea euskaltegia hobeki ezagutzeko (curriculum, mailak, funtzionamendua, lan egiteko moldea, egutegia...) eta horren parte sentitzeko.
- b) Lana egin ahal izateko oinarritzko materiala eta ordenagailua esleitua.
- b) Materialak eta informazioa trukatu ditzaten eta taldean lan egin dezaten erraztea, atazak murrizteko helburuarekin.
- c) Prestakuntzaren gaineko informazioa ematea eta ekarpenak egiteko aukera ematea.
- d) Kexei eta iradokizunei erantzutea.
- e) Lan Osasuneko jarraibideak zabaltzea eta lantokiaren osasun neurriak zaintzea.
- f) Eskubide sindikalen gaineko informazioa zabaltzea.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak

- a) Administrazioko eta zerbitzuetako langileen prestakuntza-informazioa zabaltzea eta erraztea.
- b) Gizarte trebetasunen eta gatazkek ebazteko estrategien garapena sustatzea.
- c) Lankidetzaren momentuak sortzea zuzendaritza taldearekin.
- d) Lan Osasuneko jarraibideak zabaltzea eta lantokiaren osasun neurriak zaintzea.
- e) Eskubide sindikalen gaineko informazioa zabaltzea.

7.5. Indarkeria mota desberdinen aurrean jarduteko protokoloak.

Hezkuntza Departamentuak indarrean dituen protokoloak kontuan izanen dira.

7.6. Bizikidetza planaren urteko zehaztapena.

Legeak dioenaren arabera, Hezkuntza Departamentuak orientabideei buruzko eskuliburu bat emanen die ikastetxeei bizikidetza planak, urteko zehaztapenak eta indarkeria egoeren aurrean jokatzeko protokoloak presta ditzaten, baita dokumentazio lagungarria ere.

7.7. Bizikidetzaren araudia.

Nafarroako Gobernuak ondoko lege hauetan arautzen du ikastetxeetako bizikidetza:

- 204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena. [13. ALDIZKARIA - 2011ko urtarrilaren 20a](#)
- 47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa. [116. ALDIZKARIA - 2010eko irailaren 24a](#)
- 57/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da. [148. ALDIZKARIA - 2014ko uztailaren 30a](#)

Halaber, kontuan hartu dugu Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren web orriko [informazioa](#).

7.8. Ebaluazioa

Bizikidetza planaren urteko zehaztapena ikasturte bukaeran ebaluatuko da, eta memoria batean jasoko da; atal hauetan, gutxienez ere:

- a) Urteko zehaztapenaren helburuak zenbateraino lortu diren.
- b) Hurrengo ikasturterako aholku eta prestakuntza beharrak.
- c) Bukatzen den ikasturtean ezarritako ekintza berriak eta haien emaitzak.

- d) Ekintza berrien proposamenak hurrengo ikasturterako, urteko zehaztapenean sartu beharko direnak.
- e) Bizikidetza planean sendotzen diren ekintzak.
- f) Erabilitako materialen zerrenda.
- g) Bizikidetzaren arduradunak egindako balorazio kualitatibo laburra.

Urteko zehaztapenaren memoria ikastetxearen urteko memoriaren parte izanen da.

Uhartan, 2022ko udaberrian.